

Xedapen Orokorrak

NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Zk-5444

AGINDUA, 2001eko irailaren 24koa, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, uren kalitatea eta horrek akuikulturan eta itsaskien bilketan dituen ondorioak aztertutakoan, Euskal Autonomia Erkidegoaren itsasertzeko itsas aldean sailkapena ezartzen duena.

Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 2000ko abenduaren 12ko Aginduak, zeinaren bitartez beste agindu bat aldatu baita (hain zuzen ere, uren kalitatea eta horrek akuikulturan eta itsaskien bilketan dituen ondorioak aztertutakoan, Euskal Autonomia Erkidegoaren itsasertzeko itsas aldean sailkapena ezarri duena), itsaskiak biltzeko alde egokien sailkapena ezarri du, 1979ko urriaren 30eko 79/923/EEE Zuzentaraua betetzeko. Izan ere, zuzentarau horren bidez Euskadiko ekoizpen-aldeak finkatzen dira, eta aldean tipifikazioa arautzen da, urek molusku-hazkuntzarako duten kalitateari dagokionez.

Europako Batasuneko zuzentarauak betetzeko, agintari eskudunek ekoizpen-aldeak finkatu eta zehaztu behar dituzte, jakin ahal izateko zein aldetan bil daitezkeen bi kuskudun molusku biziak. Horretarako, moluskuak hazteko urek izan behar duten kalitatea eta bete behar diren osasun-baldintzak hartu behar dira kontutan; betiere, kontsumitzaileen osasuna babesteko. Halaber, beharrezkoa da kutsatuta dauden aldean berri ematea, eta moluskuak ekoizteko bete beharreko baldintzak betetzen ez dituzten aldeak aldi baterako edo behin betiko itxi beharraz informatzea.

Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1993ko uztailaren 2ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren itsasertzeko itsas aldean sailkapena ezarri zen, uren kalitateari eta akuikultura eta itsaski-bilketa arautu beharri dagokionez. 1997ko uztailaren 1eko Aginduaren bidez, aipaturiko aldeetan egindako analisien ondorioz, kutsadura mikrobiologikoaren gradua aldatu zeneko aldean sailkapena aldatu zen, eta, era berean, moluskuak ekoizteko aldeak mugatzeko mapak argitaratu ziren. 1998ko urriaren 16ko Aginduak 1997ko sailkapenari eutsi egin zion, kutsaduraren azterketa eta analisi biologikoen arabera alde horien egoera berdintzua baitzen, eta, beraz, sailkapena mantentzea komeni baitzen.

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

Nº-5444

ORDEN de 24 de septiembre de 2001, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se establece la clasificación de las zonas marítimas del litoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco en relación con la calidad de sus aguas y sus efectos sobre el ejercicio de la acuicultura y el marisqueo.

La Orden de 12 de diciembre de 2000, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se modifica la Orden por la que se establece la clasificación de las zonas marítimas del litoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco en relación con la calidad de las aguas y sus efectos sobre el ejercicio de la acuicultura y el marisqueo, establece la clasificación de las zonas aptas para el marisqueo, dando cumplimiento de esta manera a la Directiva 79/923/CEE de 30 de octubre de 1979, que declara las zonas de producción en Euskadi y regula su tipificación en lo relativo a la calidad de sus aguas para la cría de moluscos.

En cumplimiento de las directivas comunitarias, las autoridades competentes deben fijar y delimitar las zonas de producción, de manera que sea posible determinar aquellas en que se puedan recolectar moluscos bivalvos vivos, teniendo en cuenta la calidad exigida a las aguas para la cría de moluscos y la necesidad de fijar los requisitos sanitarios que deben reunir, con el fin de proteger la salud de los consumidores, siendo asimismo necesario informar sobre las posibles zonas contaminadas y el cierre temporal o definitivo de las zonas de producción de moluscos que no reúnan las condiciones necesarias.

La Orden de 2 de julio de 1993, del Consejero de Agricultura y Pesca, estableció la clasificación de las zonas marítimas del litoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco con relación a la calidad de las aguas y a la regulación del ejercicio de la acuicultura y el marisqueo, y por Orden de 1 de julio de 1997, como resultado de los análisis realizados sobre las mencionadas zonas, se modificó la clasificación de aquellas zonas que habían sufrido alteraciones en su grado de contaminación microbiológica y se incorporaron los mapas de delimitación de las zonas de producción de moluscos. Esta clasificación se mantuvo en la Orden de 16 de octubre de 1998, al derivarse de los estudios y análisis biológicos de la contaminación de las zonas la necesidad de mantener dicha clasificación por no haber variado sustancialmente la situación de las mismas.

Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1999ko irailaren 28ko Aginduak, berriz, aldatu egin zuen bi koskodun molusku biziak bildu zitezkeen alde edo zona batzuen sailkapena, moluskuak hazteko urek ez baitzuzten osasun-baldintzak betetzen.

Euskal Autonomia Erkidegoaren itsasertzeko urak berrikitan aztertu dira (1990-2000), moluskuak hazteko eta itsaski biltzeko gaitasunaren aldetik, eta azterketa horrek agerian utzi duenez arazoak daudela oraindik koliformeekin, zeinak giza-osasunarentzako arriskugarri izan baitaitezke, komenigarri da 2000ko abenduaren 12ko Aginduak ezarritako sailkapenari eustea. Ondorioz, itsaski-biltzeko alde egokien sailkapenak ez du funtsezko aldaketarik izan.

Azaldutako guztia rengatik, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.— Euskal Autonomia Erkidegoaren itsasertzeko itsas aldean sailkapena ezartzea, uren kalitatea eta horrek akuikulturaren eta itsaskien biltzetan dituen ondorioen arabera; era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan moluskuak ekoizteko aldeak ondorengoak direla deklaratzeko.

— Hondarribia: C motako aldea da. Zona honetan ezin da itsaskirik bildu, ezta itsas hazlekuri ere; batez ere, koliforme fekalen maila altuak aurkitu direlako etengabe, osasunarentzako arriskugarri direlako. Zenbaitetan, gainera, metal batzuen kontzentrazio handia gertatzen da.

— Igeldo: B motako aldea da. Hau da, alde honetan lortutako moluskuak arazketa-prozesu bat jasan behar dute bizirik merkaturatu baino lehen. Dena den, Agitiko aldea (mendebaldea) A motakoa da, eta itsaskiak bildu eta hazi daitezke.

— Lekeitio: C motako aldea da. Zona honetan ezin da itsaskirik bildu, ezta itsas hazlekuri ere, uren kalitate bakteriologikoa txarra delako.

— Mundaka: B motako aldea da. Alde honetan lortutako moluskuak arazketa-prozesu bat jasan behar dute bizirik merkaturatu baino lehen. Hala ere, ondoko hauek C motako aldeak dira: Muruetako ontziolatik ur gora Gernikaraino, eta Txatxarramendiko uhartetik itsasadarren mendebaldeko kostara bitarteko aldea, batez ere uhartetik lehorra doan zubiaren azpian. Zona horretan ezin da itsaskirik bildu, ezta itsas hazlekuri ere.

— Plentzia: B motako aldea da. Itsasadarretik aterako moluskuak bizirik merkaturatu baino lehen, araztu egin behar dira. Dena den, C motako aldea da ondorengoa: gasolindegiko biratik itsasadarren barruko

Mediante Orden de 28 de septiembre de 1999 se procedió a la modificación de alguna de las zonas declarada apta para la recolección de moluscos bivalvos vivos, por no reunir las aguas para la cría de moluscos los requisitos sanitarios necesarios. Esta clasificación de las zonas se mantuvo sin modificaciones sustanciales en la Orden de 12 de diciembre de 2000.

Un reciente informe sobre el seguimiento de la calidad de aguas para cultivo de moluscos y marisqueo en el País Vasco (1990-2000), pone de manifiesto la persistencia de problemas con los coliformes, que pueden suponer riesgo para la salud humana, y aconseja mantener la clasificación establecida en la Orden de 12 de diciembre de 2000, no sufriendo por ello la clasificación de las zonas aptas para el marisqueo modificaciones sustanciales.

Por todo lo expuesto, en su virtud,

RESUELVO:

Primero.— Establecer la clasificación de las zonas marítimas del litoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco en relación con la calidad de sus aguas y sus efectos sobre el ejercicio de la acuicultura y el marisqueo, declarando zonas de producción de moluscos en el País Vasco las siguientes:

— Hondarribia: Clasificación Tipo C. Esta Zona esta cerrada a la práctica del marisqueo y a la implantación de cultivos marinos debido fundamentalmente a los elevados índices de coliformes fecales encontrados de manera permanente, con los riesgos que ello conlleva para la salud. En algunos casos puntuales se une a ello niveles altos de algunos metales.

— Igeldo: Clasificación Tipo B. Es decir, antes de su comercialización en vivo, es necesario depurar los moluscos procedentes de esta ría. Sin embargo, la zona de Aguti (zona oeste) se clasifica como de tipo A y está abierta al marisqueo y cultivo de moluscos.

— Lekeitio: Clasificación Tipo C. Esta Zona esta cerrada al marisqueo y a la implantación de cultivos marinos debido a la mala calidad bacteriológica de las aguas.

— Mundaka: Clasificación Tipo B. Los moluscos extraídos de esta ría serán sometidos a un proceso de depuración previo a su comercialización en vivo. No obstante, se declaran zonas Tipo C, las siguientes: aguas arriba de Astilleros Murueta hasta Gernika y el área comprendida entre la Isla de Txatxarramendi y la costa occidental de la ría, especialmente bajo el puente que une la Isla a tierra. Estas zonas están cerradas a la práctica del marisqueo y a la implantación de cultivos marinos.

— Plentzia: Clasificación Tipo B. Es necesaria la depuración de los moluscos cultivados o recolectados en esta ría previa a su comercialización en vivo. Sin embargo, se declara zona C la zona interior del estuario,

alderantz doana. Zona horretan ezin da itsaskirik bildu, ezta itsas hazlekurik ezarri ere.

Bigarrenena.— Aurreko sailkapenak espezie hauen bilketa eta hazkuntzan dauka eragina:

– Muskuiluak: (*Mytilus edulis* eta *Mytilus galloprovincialis*).

– Ostra: (*Ostrea edulis*, *Cassostrea angulata* eta *Cassostrea gigas*).

– Datila: (*Pharus legumen*, *Solen marginatus*, *Ensis ensis* eta *Ensis siliqua*).

– Berberetxoa: (*Cerastoderma edile* edo *Cardium edulis*).

– Txirlak: (*Venerupis pullastra*-*Ruditapes* edo *Tapes pullastra*-, *Venerupis decussata*-*Ruditapes* edo *Tapes decussata*-, *Venerupis semidecussata*-*Tapes semidecussata* edo *Ruditapes philippinarum*-, *Venerupis aurea* eta *Venerupis rhomboides*).

– Txirla txikia: (*Venus striatula* eta *Chameles gallina*).

Hirugarrenena.— Aurreko paragrafoan jaso eta giza kontsumorako erabiltzen diren espezieek Kontseiluaren 1979ko urtarrilaren 30eko 79/923/EEE Zuzentaraua bete behar dute. Izan ere, bi kuskudun molusku bizien ekoizpenari eta merkaturatzeari aplikatu beharreko osasun-arauak ezartzen dira zuzentzarau horren bitartez.

Laugarrenena.— Akuikultura eta itsaski-bilketarako aldeak mugatzeko mapak 1997ko uztailaren 1eko Aginduan jasotakoak dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Agindu honetan xedatutakoa garatu eta betetzeko behar diren neurri guztiak hartzeko ahalmena ematen zaio Arrantza zuzendariari.

Bigarrenena.— Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko irailaren 24a.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
IÑAKI GERENABARRENA MARTÍNEZ DE LAHIDALGA.

desde la curva de la gasolinera hacia el interior de la ría. Esta zona está cerrada a la práctica del marisqueo y a la implantación de cultivos marinos.

Segundo.— La anterior clasificación afecta a la extracción y cultivo de las siguientes especies:

– Mejillón (*Mytilus edulis* y *Mytilus galloprovincialis*).

– Ostra (*Ostrea edulis*, *Cassostrea angulata* y *Cassostrea gigas*).

– Navaja (*Pharus legumen*, *Solen marginatus*, *Ensis ensis* y *Ensis siliqua*).

– Berberecho (*Cerastoderma edile* o *Cardium edulis*).

– Almeja (*Venerupis pullastra*-*Ruditapes* o *Tapes pullastra*-, *Venerupis decussata*-*Ruditapes* o *Tapes decussata*-, *Venerupis semidecussata*-*Tapes semidecussata* o *Ruditapes philippinarum*-, *Venerupis aurea* y *Venerupis rhomboides*).

– Chirla (*Venus striatula* y *Chameles gallina*).

Tercero.— Las especies contempladas en el apartado anterior que vayan a ser destinadas al consumo humano, deberán cumplir la Directiva del Consejo, de 30 de enero de 1979 (79/923/CEE) relativa a la calidad exigida a las aguas para la cría de moluscos así como de la normativa por la que se fijan las normas sanitarias aplicables a la producción y puesta en el mercado de moluscos bivalvos vivos.

Cuarto.— Los mapas de delimitación de las zonas de acuicultura y marisqueo en el País Vasco son los que vienen definidos en la Orden de 1 de julio de 1997.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Se faculta al Director de Pesca a adoptar las medidas que sean necesarias para la ejecución de lo dispuesto en la presente Orden.

Segunda.— La presente Orden surtirá efectos al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de septiembre de 2001.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
IÑAKI GERENABARRENA MARTÍNEZ DE LAHIDALGA.